

A.- Entzumena

1	Gai da hizkera estandarrean esaten dena ulertzeko.	Zarata gehiegi egoteak, diskurtsoaren egitura desegokiak edota ez ohiko esamoldeak erabiltzeak ikaslearen ulermen-gaitasuna oztopa dezakete
2	Gai da bere aurrean esaten den gehiena ulertzeko, nahikoa ahalegin eskatzen badio ere.	Bizitza pertsonal, akademiko edo profesionalari dagozkion gaiei buruz hitz egiten denean. Baldin eta batuaz edo batutik hurbileko hizkeran egiten bada. Ad. lagunen arteko elkarrizketa, seme-alaben koadrilaren elkarrizketa, euskaltegiko C mailako ikasleen elkarrizketa...
3	Gai da hitzaldi, diskurtso, ponentzia eta beste azalpen akademiko/profesionalen ideia nagusiak ulertzeko, gai zehatzei buruzkoak nahiz gai abstraktuei buruzkoak, baldin eta hizkuntza estandarrean eta erritmo egokian esana bada.	Ad. Euskaltegiek edo bestelako elkarte eta erakundeek antolatzen dituzten kultura-ekintzak, hitzaldiak: liburu baten aurkezpena, mendi ibilaldi baten kontakizuna, gai eztabaidagarri bati buruzko hitzaldia... edota ikaslearen intereseko ikastaroak etab.
4	Gai da eguneroko gaiei buruzko irratia-saioetako ideia nagusiak ulertzeko, mantso eta argi ahoskatuta direnean.	Euskadi Irratiko <i>Goizean Behin</i> saioa, esaterako. Ad. Hegaztien gripea, arrantza, langabezia...
5	Gai da hizkuntza estandarreko irratiko grabazioak ulertzeko, eguneroko bizitzakoak, profesionalak... baita hiztunaren ikuspegi, jarrera, aldartea, tonua e.a. atzemateko ere.	Gelan erabiltzen diren grabazio aukeratuak euskara estandarrean. Adibidez Joane Somarribiari egindako elkarrizketa, Argiñanori, etab
6	Gai da telebistako gaur egungo gaiei buruzko saioetako berri gehienak ulertzeko.	Ad. <i>Gaur egun</i> , albistegia. <i>Bertatik Bertara</i> bezalako saioak, etab.
7	Gai da dokumentalak, zuzeneko elkarrizketak, eztabaidak, antzerki-lanak eta hizkuntza estandarreko film gehienak ulertzeko.	Ad. Naturarekin lotura dutenak – <i>Mundu berri Harrigarria</i> -, <i>Eztabaidak –Kalaka-</i> ...
8		

B.- Irakurmena

1	Gai da testu-mota asko nahiko erraz irakurtzeko, lastertasun desberdinetan eta hainbat eratar, irakurketaren helburuaren eta testu-motaren arabera.	Adibidez, egunkarietako artikulua, testu berriemaileak, filmen kritikak, kultur ekitaldiak, pilota partida baten kronika... etab.
2	Gai da bere lan-arloko albiste, artikulua, erreportaje eta txostenen edukia eta esanahia azkar identifikatzeko, eta gai da irakurketa sakonagoa egitea beharrezkoa den ala ez erabakitzeko. Horrela denean zehaztasunez ulertzeko gai da.	Adibidez, ikaslea irakasle bada, pedagogia, metodologia edo psikologia arloko langaiak, esaterako, <i>Hik Hasi</i> aldizkarian jorratzen diren gaiak.
3	Gai da bere intereseko, lan-arloko eta espezializazio-esparruko gutunak irakurtzeko eta esanahi orokorraz jabetzeko.	Adibidez, Aurrezki Kutxak bidali ohi dituen gutunak interesen igoera jakinarazteko, segurtasunezko gomendioak emateko, edo telefono konpainiak eskaintza berriak iragartzeko gutuna, Travel Club etab.
4	Gai da bere espezialitatetik kanpoko artikulua espezializatuak ulertzeko, baldin eta tarteka hiztegia erabil badezake.	Adibidez <i>Elhuyar</i> aldizkarian argitaratzen direnetakoak.
5	Gai da eguneroko arazoei buruzko artikulua eta erreportajeak irakurtzeko; baita egileek agertzen dituzten jarrera edo ikuspegiak ulertzeko ere.	Adibidez, <i>euskarako egunkari eta aldizkarietan</i> gai zehatzei buruz (osasuna, garraioa, elikadura, politika etab.) idatzitako artikulua.
6	Gai da gidaliburuak azkar irakurtzeko (esaterako, ordenagailu-programa batena) eta arazo jakinak konpontzearen behar dituen argibideak aurkitu eta ulertzeko.	Aparailu, tresna elektronikoa eta abarren gida liburuak, esaterako.
7	Badu irakurtzeko hiztegi zabala, baina batzuetan zailtasunak izaten ditu hain ohikoak ez diren hitz eta esaldiekin.	
8		

C.- Idazmena

1	Gai da hainbat iturritako informazioa eta argumentuak laburtzeko.	<i>Gaur egun</i> -en emaniko berria eta <i>Berrian</i> argitaraturiko iritzi artikulua laburtzeko.
2	Gai da film, liburu edo antzerki-lan baten kritika laburrak idazteko.	Emanaldi baten kritika egin. Bere iritzia eman. Adibidez, <i>Ruper Ordorikaren</i> emanaldiari buruzko 20 lerroko idazlana egiteko bere iritzia eman.
3	Gai da benetako edo irudizko gertaerei eta esperientziei buruzko deskribapen argiak eta ongi egituratuak idazteko.	Azalpenezko idazlana egitea. Adibidez 78ko San Ferminetan gertatutakoari buruz. Eginiko bidaia bati buruzko azalpen argiak eta zehatzak egin ditzake.
4	Gai da azalpenak emateko idazlan edo gutun batean, iritzi baten aldeko zein kontrako argudioak aurkeztuz.	<i>Bake prozesuari</i> buruzko eskutitz bat idaztea <i>Berrian</i> argitaratzeko.
5	Gai da arazo batean aplika daitezkeen ideiak edo soluzioak emateko.	Auzoko aldizkari batean, trafiko edo atzerritarrekin sorturiko arazoei irtenbideak proposatzeko artikulua idatz dezake.
6		

D.- Idatzizko elkarreragina

1	Gai da gutunetan emozioa transmititzeko eta gertaerek eta esperientziek beretzat duten garrantzia nabarmentzeko, baita gutun-trukea duen pertsonekin albisteez eta ikuspegiez hitz egiteko.	<i>Guantanamo</i> n gertatzen ari denari buruz bere emozioak, barne sentimenduak, samina, haserrea adierazi.
2	Gai da informazioa eskatzeko zein arazoak azaltzeko mezuak eta oharrak idazteko, lagunei, inguruko pertsoneri, irakasleei..., garrantzizkoak diren alderdiak azpimarratuz.	Lan eskaintza bati buruzko informazioa idatziz eska dezake.
3		

E.- Ahozko adierazpena

1	Gai da deskribapen argi eta xeheak egiteko bere interesekin loturiko gaiei buruz.	Deskribapen fisiko eta psikikoak. Bere burua, ikaskidea, animaliak, etxeak, paisaiak, egoera. Adjektiboak, kokapena, konparazioak.
2	Gai da argudioak argitasunez garatzeko, ideia osagarriak eta adibideak emanez, eta arrazonamendu logikoak eraikitzeke.	Iritzia eman, entzundakoaren laburpena egin, zergatiak, adostasunak. Entzundakoaren mamia eta azala bereizi.
3	Gai da arazo edo gai bati buruzko ikuspegiak azaltzeko, hainbat aukeraren alde onak eta txarrak proposatuz.	Bi taldetan iritzi kontrajarriak eman. Arrazoiak bilatu -alde -aurka Besten tokian jarri. Bere iritziaren aurka argudiatu.
4	Gai da gai orokor gehienei buruzko adierazpenak egiteko, argitasunez, jariotasunez eta bat-batean, entzulearengan tentsiorik edo eragozpenik sortu gabe.	Kontaketa egin. Entzundakoa kontatu, laburtu. Ipuinak, istorioak, gauza barregarriak, beldurgarriak, izugarriak.
5	Gai da aurrez prestatutako aurkezpen argiak egiteko, ikuspegi jakin baten aldeko edo kontrako argudioak emanez.	Gaia prestatu eta aurkeztu.
6	Gai da aurrez prestatutako testu batetik urruntzeko eta egindako galderari eta iradokitako ideiei interesgarriari bat-batean heltzeko, erraztasunez.	Gaia prestatu eta aurkeztu ondoren, ikaskideek egindako galderari erantzun.
7		

F.- Elkarreragina (elkarrizketa)

1	Gai da norbaitekin naturaltasunez hizketan hasi, jardun eta bukatzeko, hitz egiteko txandak hartuz eta emanez.	Elkarrizketan parte hartzea: kontaketa.
2	Gai da ama hizkuntzan diharduten hiztunekin solasean aritzeko eragozpen larririk sortu gabe (adib., barre eragin, erregistroa aldatzera behartu, etengabe galdetu e.a.).	Baldin eta solaskidea alfabetatua bada.
3	Gai da eztabaidetan bere iritziak arrazoitu eta defenditzeko, horretarako argibideak, argudioak eta iruzkinak eginez.	Eztabaidetan galderak prestatu, erantzunak, zergatia. Bi taldetan alde eta aurka.
4	Gai da emozioak adierazteko eta gertaerek eta esperientziak beretzat duten garrantzia nabarmentzeko.	Sentipenak kontatu: bere esperientzia pertsonala.
5	Gai da iturri desberdinetatik ateratako informazioa laburtzeko eta trukatzeko.	Gaia prestatu informazio asko kudeatuz: gaia eta galderak emanda diskurtsoa prestatu.
6	Gai da aurrez prestatutako elkarrizketetan era aktiboan parte hartzeko jarriotasunez eta	Gaia prestatu.

2. zehaztapena

Helburuak

B2. maila

	galderetatik aldenduz.	
7	Gai da eztabaidaren garapenean laguntzeko, egindako baieztapenei ekarpenak eginez, esandakoa ulertzen duela berretsiz, beste solaskide batzuk parte hartzera bultzatuz, etab.	Galderak, informazio gehigarria, esperientziak, gertakariak kontatu gaia zabaltzeko.
8	Gai da solaskideak esana ulertzen duela egiaztatzeko galderak egiteko eta zalantzak azal diezazkieten eskatzeko.	Azalpenak eskatu eta eman.
9		

G.- Estrategiak

1	Gai da, entzulea kontuan izanda, diskurtsoa eta behar dituen baliabideak planifikatzeko.	
2	Gai da, hiztegian eta egituretan dituen hutsuneak bete ahal izateko, itzulinguruak eta parafraasiak erabiltzeko.	
3	Gai da esaldi eginak erabiltzeko denbora irabazteko	
4	Gai da bere akatsak eta hutsegiteak zuzentzeko, konturatzen denean edo gaizki ulertzeko bidea ematen dutenean.	
5		